

UDALAREN OSOKO BILKURA

2018ko abenduaren 27ko ohiko bilera

BERTARATUTAKOAK

ALKATE UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
XABIER LOSANTOS OMAR
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO
IDOIA BLASCO CUEVA

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
ARITZ TELLITU ZABALA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA

AZALDUTA:

IKER AGIRRE BARTZENA

EUSKARA ITZULTZAILEA

MATTANE URIARTE AND.

KONTU HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

Leioako udaletxean, 2018ko abenduaren 27ko 12:16an, elizate honetako Osoko Bilkura bildu da, , **M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ** alkate udalburu andrea buru dela eta ertzean aipatu diren zinegotziak bertan direla. Hala, Udalbatza zuzenbidez eta berez osatzen duten kideen gehiengo legala osatu da, eta bertan izan da **CHIARA CAMARÓN PACHECO** idazkari nagusi andrea, ohiko saioa egite aldera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, alde aurretik alkate udalburu andrearen ekimenez horretarako deitu dena, aipatutako Legearen 21.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eta Leioako Udalaren Herritarrek Parte Hartzeko Araudi Organikoaren 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz. Araudi hori 2013ko irailaren 23ko 182. BAOn argitaratu zen, eta Osoko Bilkuraren urte bereko ekainaren 27ko Erabakiaren bidez onetsi zen.

Ordu horretan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio.

I.- EBAZPEN ATALA

1.- ANIMALIAK JASOTZEKO ETA TXAKURTEGI ZERBITZUKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA:

Idazkari nagusiak Osoko Bilkurari jakinarazi dio deialdian akats bat egon dela; izan ere, ordenantza fiskal honen aldaketa ezin daiteke indarrean sartu 2019ko urtarrilaren 1ean. Hori dela eta, puntu horretako esaldia zuzendu da.

Proposamena irakurri da eta aintzat hartu da 16. zenbakiko irizpena, 2018ko abenduaren 18an Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian hartutakoa (horren ziurtagiria espedientean jasota dago).

Ikusi da 2019ko ekitaldirako tarifa gehikuntzarako proposamena, espedientean jasota dagoena.

Ikusi da Juan Carlos Martinez Llamazares jaunak Leioako Euskal Sozialistak taldearen bozeramale gisa aurkeztutako idatzia. Horren bidez, proposatu zuen bi salbuespen berri txertatzea 4. artikuluan, erabaki proposamenean sartu direnak.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu ostean, Osoko Bilkurak, aldeko hemezortzi botoren gehiengoarekin (bileran egon diren Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien botoak, Euskal Sozialistak taldeko hiruenak, Esmatu Leioako lauenak eta EH Bildu Leioako hiruenak) eta bi abstentziorekin (Leioako Alderdi Popularreko bi zinegotzienak), honako hau **ERABAKI DU**, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluko d eta e letrek aitortutako ahalmena betez eta, besteak beste, Bizkaiko Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan eta zerga zehatz honen araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

LEHENENGOA: Behin-behinean onestea Animaliak jasotzeko eta txakurtegi zerbitzuko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa, jarraian adierazitako xehetasunekin eta 2019-01-01ean indarrean sar dadin.

2019ko tarifa	Tarifa 2019
1.-Animaliak onartzea.	1.-Admisión animales.
a) Animalia kentzea zerbitzuko biran edo Udaltzaingoak, Ertzaintzak zein herritarren baten deiaren ondorioz	a) <i>Retirada</i> del animal por la ronda del servicio o por aviso de la Policía Local, Ertzaintza o vecinos
	27,00
b) Jabeen Erkidegoek jabetun eremuetako <i>katuak</i> kentzea	b) Retirada de <i>gatos</i> de zonas privadas por parte de las Comunidades de Propietarios:
<i>Katu bakoitzeko</i>	<i>Por cada gato</i>
	15,00
c) Jabeak zein hark eskuordetutako pertsonak <i>eutanasia</i> egiteko ekarritako animalia kentzea, edo adin, izaera, patologia, ohitura desegoki, eta abarregatik Txakurren Udal Zerbitzuak emateko modukoa ez dela irizten dionez aukera bakarra eutanasia duen animalia onartzea. Onartzen den unean, jabeak edo jabearen eskuordetuak eutanasia eta ondorengo errausketarako baimena sinatu beharko du	c) Retirada del animal entregado para la realización de la <i>eutanasia</i> por su propietario o persona delegada por él o bien admisión de un animal que por su edad, carácter, patología, hábitos inadecuados, etc., sea considerado por el Servicio Canino Municipal no cedible y siendo, en consecuencia, su único destino la eutanasia. En el momento de la admisión, el propietario o persona delegada, deberá firmar la autorización de eutanasia, así como la posterior incineración
.....
.....	105,00
2.- Txakurtegia.	2.- Albergue Canino.
Txakurtegiko egonaldia gutxienez egun batekoa	El mínimo de estancia en el albergue será de un día

izango da (sarreraren kudeaketa: fitxa, argazkia, albaitariaren kontrola, etab.) 24 orduko beste egun bat kobratuko da.

(gestión de entrada: ficha, fotografiado, control veterinario,..etc). Cada 24 horas se cobrará un día más.

Txakurtegia ematen duen egun bakoitzeko **12,00**

Por día de estancia en el albergue canino..... **12,00**

3.- Mikrotxipa ipintzea.

3.- Colocación de microchip.

Ipini den mikrotxip bakoitzeko **42,00**

Por cada microchip colocado..... **42,00**

4.- Animaliak adoptatzeko ematea.

4.- Cesión de animales para adopción.

Animaliak adopzioarako lagatzeko, aurretiaz, txerto guztiak ipini beharko dizkio Txakurren Udal Zerbitzuak. Antzutu nahi izatekotan, beren-beregi baimendu beharko du animalia adopzioan hartuko duen pertsonak.

La cesión de animales para su adopción será previa vacunación completa por el Servicio Canino Municipal. La esterilización, opcional, será autorizada expresamente por la persona que adopta al animal.

a). Antzututako txakurra adoptatzea **63,00**

a). Adopción de perro esterilizado **63,00**

b). Antzututako katua adoptatzea **16,00**

b). Adopción de gato esterilizado **16,00**

c) Txakur antzutuarengatik tasaren salbuespenerako eskubidea izango dute uanean indarrean dagoen administrazio-araudiaren arabera arriskutsua izan daitekeen txakur bat adoptatzen duten pertsonak.

c) Tendrán derecho a la exención de la tasa por adopción de perro esterilizado, aquellas personas que adopten un perro declarado como animal potencialmente peligroso por la normativa administrativa vigente en cada momento.

d) Antzututako katuak adoptatzeko tasan salbuespenerako eskubidea izango dute bularreko katuentzako abegi etheen programaren baitan aldi baterako katu bat hartu eta, horren ostean, adoptatzeko erabakia hartu dutenek.

d) Tendrán derecho a la exención de la tasa de adopción de gatos esterilizados aquellas personas que hayan acogido temporalmente a un gato dentro del programa de Casas de Acogida para gatos lactantes y posteriormente hayan decidido adoptarlo.

e) Txakurrak edo katuak adoptatzeko tasan salbuespenerako eskubidea izango dute aurreko jabeengandik tratatu txarrak jaso dituen, larriki gaixo dagoen edo oso zaharra den animalia horietako bat adoptatzen dutenek. Animaliak jasotzeko udal zerbitzuko albaitariaren txostenaren bidez egiaztatu behar dira egoera horiek.

e) Tendrán derecho a la exención de la tasa por adopción de perros o gatos esterilizados, aquellas personas que adopten uno de estos animales que hayan sido objeto de maltrato por parte de su anterior propietario o propietaria, este gravamen enfermo o de edad avanzada, debiéndose acreditar dichas circunstancias mediante informe del personal veterinario del servicio municipal de recogida de animales

5.- Jakinarazpena.

5.- Notificación.

Animalien jabeen frogaren bidez jakinaraztea. Burofata bidaltzea **12,00**

Notificación fehaciente a los dueños de los animales. Envío de burofax **12,00**

6.- Maskoten erretiratzea berriro egiteagatik, urtean bigarren erretiratzeagatik aurrera.....

6.- Por la reincidencia en la retirada de mascotas, a partir de la segunda retirada por año natural.....

62,00

62,00

BIGARRENA: Aldaketaren edukia udalaren iragarki taulan jendaurrean jartzea 30 egunez, BAOn eta lurralde historikoan hedapen handiena duten egunkarietako batean argitaratu ostean; epe horretan, interesdunek espediente berrikusi ahalko dute, bai eta erreklamazioak aurkeztu ere.

HIRUGARRENA: Era berean, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 50. eta 53 a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, ordenantza fiskalaren proiektua argitaratuko da, gutxienez hasieran onetsi eta berehala, erakundearen webgunearen edo egoitza elektronikoaren bidez.

LAUGARRENA: Hala badagokio, erreklamazioak ebatzi egingo dira Osoko Bilkuraren behin betiko onesteko erabakiaren bidez. Kontuan izan behar da behin-behineko akordioa behin betikotzat joko dela automatikoki, baldin eta 30 eguneko epea agortutakoan erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Hori guztia 9/2005 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

BOSGARRENA: Aldaketen testu osoa BAOn eta udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

2.- UDALAREN ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETARI DAGOKION 2018KO AZAROKO FAKTURAREN ERAGOZPENA KENTZEA

Proposamena irakurri da eta aintzat hartu da 2018ko abenduaren 18an Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian hartutako irizpena. Horren ziurtagiria espedientean jasota dago.

Oinarria: Osoko Bilkuraren 2011ko irailaren 29ko 8 Erabakia. Horren bidez udalaren lokalen garbiketa zerbitzuen kontratazioa adjudikatu zen.

Oinarria: 2011ko azaroaren 7an sinatutako kontratuaren bidez formalizatu zen, eta hasiera betean lau urterako zen, formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin; kontratuak gehienez sei urte iraun dezake.

Oinarria: Administrazio Baldintza Arautzaileen Pleguetako 10. puntua, honako hau ezartzen duena: “kontratu honen iraupena lau urtekoa izango da, administrazio dokumentu gisa formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Dena den, bi alderdiak ados badaude, kontratua aldatu eta luzatu ahalko da, betiere iraungi baino hiru hilabete lehenago adosten bada, gutxienez. Edonola ere, kontratuaren iraupen osoa (luzapenak barne) ezingo da sei urte baino gehiagokoa izan”.

Oinarria: Ondorioz, kontratazio epea iraungi egin da; beraz, gaur egun ez dauka indarrean dagoen kontratu batek bermatzen duen lege babesa.

Oinarria: Enpresak zerbitzuak ematen jarraitzen du eta, hortaz, egindako lanei dagokien faktura igortzen du. Horren adibide da 2018-11-26ko TB 2018/1571 faktura (kontabilitateko erregistro zenbakia: 5.709), 171.281,79 eurokoa, gehi dagokion BEZa (35.969,18 euro). Hau da, Leioako Udalaren eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzuen ondorioz azaroan sortutako gastua, guztira, 207.250,97 eurokoa izan zen.

Oinarria: Aurkeztutako faktura ordaintzearen aldeko txostena egin zuen udaleko bulego teknikoak azaroaren 30ean, zerbitzu horiek egiaz eman direla argudiatuz.

Oinarria: Udalaren lokalen garbiketa zerbitzua (epea jadanik agortuta duena) ematen duen enpresak aurkeztutako faktura ordaintzeko proposamenari eragozpen oharra egin zion udaleko Kontu Hartzaitzak abenduaren 3an; izan ere, “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko funtsezko betekizun edo izapiderik espedientean ez agertzea” dakar horrek. Hala ere, era berean jakinarazi zen egikaritutako prestazioa ordaintzen ez bada, toki erakundea bidegabeki aberastuko dela.

Oinarria: Sektore publikoan kontratazioa arautzen duen araudiak ezarritako erregulazioa (urriaren 30eko 30/2007 Legea eta azaroaren 8ko 9/2017 Legea), bai eta Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ezarritakoa ere, eta Aurrekontua Egikaritzeko Arauak, indarrean dagoen 2018. urterako Aurrekontu Orokorren eranskin gisa onartutakoa.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko hamaika botoren gehiengoarekin (bilkuran egon diren Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiruenak), kontrako lau botorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzianak) eta bost abstentziorekin (EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzianak eta Leioako Alderdi Popularreko bienak), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- 2018ko azaroari dagokion udalaren lokalen garbiketaren faktura ordaintzeko proposamenari udaleko Kontu Hartzaitzak egindako eragozpen oharra kentzea, bat etorritik udalaren zerbitzu teknikoaren 2018ko azaroaren 30eko aldeko txostenarekin.

Bigarrena.- Horren ondorioz, TB 2018/1571 zenbakidun faktura ordaintzea erabaki da (kontabilitateko erregistro zenbakia: 5.709/18), 207.250,97 eurokoa (BEZa barne), azaroan udalaren lokalen garbiketa zerbitzua emateari dagokiona, Enviser Servicios Medioambientales SAU enpresaren alde.

Hirugarrena.- Ebazpen hau aurreko puntuan adierazitako enpresari jakinaraztea.

3.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK:

Proposamena irakurri da eta aintzat hartu da 2018ko abenduaren 18an Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian hartutako irizpena. Horren ziurtagiria espedientean jasota dago.

Ikusi dira Osoko Bilkuraren erabakiari (Osoko Bilkuraren 2018-10-25eko 4. Erabakia), Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onetsi zuenari, aurkeztutako bi erreklamazioak. Erreklamaziogilea Pedro Ángel Jimenez San Martín jauna izan zen.

Ikusi da udaleko Zerbitzu Teknikoen txostena, espedientean jasota dagoena eta ebazpen hau emateko arrazoi izan dena.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko hamaika botoren gehiengoarekin (bileran egon diren Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien eta Euskal Sozialistak taldeko hiruen botoak), kontrako lau botorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzianak) eta bost abstentziorekin (EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzianak eta Leioako Alderdi Popularrereko bienak), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- EZESTEIA 2019rako Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren Ordenantza Fiskala aldatzeko aurkeztutako eskaerak. Horien bidez eskatu zen kuotaren % 75eko eta % 90eko hobariak aztertzeko, ibilgailuen motorren eta kontsumitzen duten erregai motaren arabera.

Bigarrena.- Behin betiko onestea TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN aldaketa, honako eduki honekin:

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Potencia y clase de vehículo	2019ko tarifa Tarifa 2019
A) Turismoak		
8 zerga zaldi baino gutxiago	De menos de 8 c. Fiscales	29,32
8-11,99 zerga zaldi bitartekoak	De 8 hasta 11,99 c. Fiscales	76,84
12 zerga zaldi baino gehiagotik 13,99ra bitartekoak	De 12 hasta 13,99 c. Fiscales	146,60
14 zerga zaldi baino gehiagotik 15,99ra bitartekoak	De 14 hasta 15,99 c. Fiscales	159,74
16 a 19,99 zerga zaldi baino gehiagokoak	De 16 hasta 19,99 c. Fiscales	197,15
20 zerga zaldi baino gehiagokoak	De 20 c. fiscales en adelante	246,68
B) Autobusak		
21 plaza baino gutxiagokoak	De menos de 21 plazas	182,99
21-50 plaza bitartekoak	De 21 a 50 plazas	260,84
50 plaza baino gehiagokoa	De más de 50 plazas	326,55
C) Kamioiak		
Zama erabilgarria 1.000 k baino gutxiagokoa dutenak	De menos de 1.000 Kg. de carga útil	92,00
Zama erabilgarria 1.000-2.999 k bitartekoa dutenak	De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil	182,99
Zama erabilgarria 2.999-9.999 k bitartekoa dutenak	De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil	260,84
Zama erabilgarria 9.999 k baino gehiagokoa dutenak	De más de 9.999 Kg. de cargo útil	326,55
D) Traktoreak		
16 zerga zaldi baino gutxiago dutenak	De menos de 16 c. Fiscales	38,42
16-25 zerga zaldi bitartekoak	De 16 hasta 24,99 c. Fiscales	59,65
25 zerga zaldi baino gehiagokoak	De más de 25 c. Fiscales	182,99
E) Atoi eta trakzio mekanikodun erdiatoiak		
Zama erabilgarria 751-1.000 k bitartekoa	De 751 Kg. a 1.000 Kg. de carga útil	38,42
E) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica:		

..... dutenak.....		
Zama erabilgarria 1.000-2.999 k bitartekoa	De 1.000 a 2.999 Kg.de carga útil.....	59,65
..... dutenak.....		
Zama erabilgarria 2.999 k baino gehiagokoa	De más de 2.999 Kg.de carga útil.....	182,99
..... dutenak.....		
F) Beste ibilgailu batzuk	F) Otros vehículos:	
Ziklomotoreak	Ciclomotores	8,09
125 cc arteko motozikletak.....	Motocicletas hasta 125 c.c.....	8,09
125 cc baino gehiagotik 250 cc-ra bitartekoak.....	Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c.	16,18
250 cc baino gehiagotik 500 cc-ra bitartekoak.....	Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c.	34,37
500 cc baino gehiagotik 1.000 cc-ra bitartekoak...	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c.	67,74
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	Motocicletas de más de 1.000 c.c.....	134,46

Hirugarrena.- Ordenantza fiskalaren testu osoa argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Argitalpen horren ostean sartuko da indarrean, 2019-01-01ean.

Laugarrena.- Ordenantza fiskalaren testu osoa argitaratzea udalaren gardentasun atarian.

II.- OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA **KONTROLATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA**

4.- ALKATETZA UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU **BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK, 2018-11-22tik 2018-12-18ra:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsia) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean Alkateak emandako dekretuen kopia, dagokion tokian ondoren artxibatzeko aukera alde batera utzi gabe.

El pleno se da por **enterado**.

5.- PREMIAZKO MOZIOAK

Zati honetan ez da premiazko moziorik aurkeztu.

6.- GALDE-ESKEAK

Eta arratsaldeko ordu bata eta hogeita hemezortzi minutu direnean, Alkateak Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritzak honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia nik ziurtatu dut, idazkari nagusia naizen honek.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA